

Barañaingo lakuko gertakarien harira

Azken hilabeteetan Barañaingo lakuan presentzia polizial itogarria jasan izan dugu: isunak, identifikazioak, poliziaren jarrera oldarkorra, auzokideen txibatazoak eta baita antidisturbioen erabilpena ere. Gazteok jopuntuan jarri gaituzte egungo arazoan eta krisiaren erantzule bagina bezala. Baina, lotsagabekeriaz eta arduragabekeriaz jositako irudi desitxuratutik harago, gazteon aisialdi eremu nagusiak ukatuak edo kriminalizatuak izan direla kontuan eduki behar dugu. Indar polizialez bete dira eremu hauek, aisialdirako beste aukerarik ez dugun bitartean. Egoera honek bizitzen gabiltzan krisiaren ondorioetara egokitzea eta otzan mantentzera eraman nahi dute gazteria.

Hala, urte honetan zehar poliziaren figura garrantzitsuagoa bihurtu da burgesiarentzat, krisiak ordena burgesaren mantenua kolokan jartzeko arriskua baitu. Krisia pandemiak eragin duela dirudi, baina krisia ate-joka zetorren metaketa-krisi bat da. Hartara, pandemia kausa izatetik urrun, katalizatzaile bat besterik ez da izan. Krisi estruktural honen aurrean, burgesia gizartea berregituratzeko ezinbestean aurkitzen da kapital metaketak bere horretan jarrai dezan. Berregituraketa hori ahalbidetzeko beharrezko diren aldaketa guztiak egin eta behar dituen mekanismo guztiak erabiliko ditu: komunikabideak, kontrol sozialerako mekanismoak, instituzioak, polizia administrazioa...

Finean, krisi lazgarri honi aterabide poliziala eman zaio —Nafarroan, esaterako, Polizia Foralarentzako proposatutako plan estrategikoak 9,5 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa aurreikusten du lau urtean— eta, GKSk salatu bezala, azken urtean gazte kriminalizazioaren areagotzea ekarri du. Horren adibide argia da konfinamendutik atera ginenetik lakuan egon den indar polizialen presentzia, gazteak uneoro bigilatuaz. Edota udan BGAtik egin genituen asanblada irekiak poliziak oztopatu izana, bai eta azken hilabetean Iruñerriko GKSk egindako inkesten emaitzak. Kalera irten eta egoera ikuste hutsa ez dugu behar.

Horregatik guztiagatik, Barañaingo Gazte Asanbladak eta Barañaingo Gazte Koordinadora Sozialistak elkarretaratze bat egingo dugu datorren maiatzaren 7an, arratsaldeko 7tan.

Utzi bakean Barañaingo gazteria!
¡Basta de acoso policial!



Barañain